

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0005
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	001783 - 2024/06/18
	Dekretu-zk.: / Nº Decreto:	/
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkarria: / Representante:	Koldobika Rodriguez Akarregi
	Gaia: / Asunto:	HERRI URRATS: 2024ko dirulaguntza

515/2024 ALKATE DEKRETUA

2024ko ekainaren 18an, Koldobika Rodriguez Akarregik, Herri Urrats elkartearen izenean 1783 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatutako eskaera bidez, Herri Urrats elkarteak 2024 urtean HERRI URRATS jaia dirulaguntzea eskatu dio Ibarra Udalari.

Ibarra udala bat dator Herri Urratsen bidez lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Herri Urrats.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Herri Urrats delako Iparraldean euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntzara sustatzea helburu duen festa bakarra, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.02 diru partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea Iparraldean euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntzara sustatzea helburu duen Herri Urrats egitasmoa.

BIGARRENA.- Aipatu dirulaguntza 400 €-koa izango da eta Herri Urrats 2024 egitasmoa antolatzen duen Herri Urrats Elkarteari (399 539 196 000 28) ordainduko zaio 3035 0059 8205 9073 1197 kontu korrontean.

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.02 2024 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administraziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko Herri Urrats 2024 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0005
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	001783 - 2024/06/18
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	/
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkarria: / Representante:	Koldobika Rodriguez Akarregi
	Gaia: / Asunto:	HERRI URRATS: 2024ko dirulaguntza

ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.-Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio.

BEDERATZIGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko irailaren 4a

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024WDIZ0005-Dekretua/Decreto (RODRIGUEZ,AKARREGI,KOLDOBIKA)